

Hemengoak eta hangoak

Antton Izagirre

Badut herrian Cheikh izeneko lagun senegaldarra. Lagun diot, bestelako adiskidetasunik gabe, berak saltzen baitizkit galtzerdiak, biserak, sukalde zapiak, marka faltsifikatuko galtzontzillo eta bestelako jantziak. Kale saltzailea da eta beste zenbait bezala hortik bizi da, nolabait bizi. Cheikh oso gaztea da eta, bizimodua aurrera ateratzeaz gain, bere ilusioa hango etxekoei noizean behin zerbait bidaltzea da. Ez du haiekiko atxikimendurik hautsiko, sortu den lurrarekiko eta bereekiko fideltasuna. Hainbat urteren ondoren haiek bisitatzea itzuliko da, hegazkin txartela erosteko adina aurrezten duenean.

Cheikh atzerritarra dela esango dugu, ez dela hemengo, kanpotarra, etorkina.

Koloreak, bizimoduak, hizkuntzak nabarmenduko du. Zertan datza atzerrikoa ala bertakoa izatearen aldea? Hemengo ala kanpotarra?

Hemengo enpresarien buruek esan berri dute, jaiotza tasak beherantz eta populazio zahartzen doan neurrian, langileak eta batik bat langile kualifikatuak faltako direla urte gutxi barru. Ez dela beste aukerarik: jaiotza tasen piramideak aldatu ala etorkinei bide eman. Dagoeneko zaintza edo gaizki ordaindutako zerbitzuetan joera hori ikusten ari garen moduan, gabezia bera industria mundura ere helduko dela aurreikusten da.

Enpresarien buruek ikuspegi ekonomikoa zuten kezkaren iturburu. Gaiak izan ditzake beste hainbat kezka iturri; hala

nola formazio edo prestakuntza ereduak, soldata, irabaziak, lan baldintzak eta abar.

Baina badu gai honek herri ikuspegitik kezkatu behar gaituen beste helduleku bat: hizkuntzarena, hain zuzen ere.

Nire lagun senegaldarrak, hemen jaiotako askok bezala, ez du euskara ikasi. Agian etorkizunean, hango edo hemengo prestakuntza tarteko, lanposturen jabe egingo dira, bertaratuko dira, euskara jakitea beharrezkoa dutela inork aitortuko ez dielarik.

Inor ez da ilegala, hangoa eta hemengo, bertakoa zein kanpotarra, baina herri bezala nor izateko, euskarak gure ezinbesteko lurraldea izan behar du eta hori erabakitzeke botere politikoa behar dugu. •

Karrikan kalaka kolokan

Miren Azkarate
Badiola

Albistearen lerroburua irakurri nuenean, nire lehenengo erre-akzioa barre algara bat izan zen. Cadizko herri batek “*charla al fresco*” deiturikoa Unescoren ondare ez-material izendatzea eskatu du. Grazia egin zidan lehen gauza kakotx artean idatzitakoa da, andaluziarren umore bixi hori... Eta bigarrenik, burura etorri zitzaidan irudia: amona talde bat, euren etxeko atarietan, hondartzako aulkietan eserita hitz eta pitz.

Eta halaxe zen, bai, ez nenbilen oso urruti, finean babestu nahi dutena hori baita: eguneko beroak eta eguzkiak joa-

tean bertako biztanleak kalera atera eta auzoko senide edo lagunekin hitzaspertuak izateko ohitura ez galtzea.

Jakin-minak bultzatuta irakurtzen jarraitu nuen eta pixkanaka aurpegiko irribarrea desagertzen hasi zitzaidan eskaeraren zergatiak irakurtzean.

Teknologia berrien etorrerarekin, ohitura hau desagertzearaino kondentzen ari omen da. Gaur egun jendeak nahiago du telebistari, tabletari edo mugikorrekiko pantailari begira egon aurrez aurreko elkarrizketak izan baino. Ondorioz, usadio hau galtzeaz dago eta Algarrekiko alkateari otu zaio, hone-

kin oso kezkatuta, Unescori eskaera egitea.

Larria benetan honaino iritsi izana, eta ez da soilik penintsulako 1.400 biztanleko herri honetan gertatzen den zerbait, errealitate hau nonahi eta gero eta presenteago baitugu. Portzierto, gai honen aukeraketa lagun arteko “frexkurako solasaldi” batean egin nuen. Frexkurarena erraza da gure herrian, baina horrelako elkartzea eta hitzaspertuak gero eta zailagoak. Altxa ditza-gun begiak pantailetatik eta atera gaitezen kalera, plazara, ohitura zahar onak ez galtzeko besterik ez bada ere. •